

Alegi, fabulek, idazlea irudiketa sinboliko batetara eramaten dute. Liburu hontan bezala.

Mikel Zaratek bere ipuietan sortu dituen pertsonaia hoiak, gure egoera nahas eta biurriaren prototipo dira. Baina pertsonaiek problemarekin dute lotura; alegietan gertatu ohi denez, problemaren planteamendua eskema adierazgarri batzutara eraman ohi da.

Bestetik, Zarate berak libururako prestatu duen sarreran garbi agertzen du gure arteko zenbait eztabaida, iritzi desberdin, kontraste eta burruka, alegien bidez zehaztu eta agertu nahia.

Mikel Zaratek horretarako doai berezia du; gizartearen kontzientzia-esnatze hori, esnaketa horrek beregan daramatzin kritika, zirikada eta astiñaldiekin, literatur hizkuntza trebe, garbi eta indartsu batekin lortu nahi baitu. Zarateren literatura alferriko apaingailu eta jazkera enbazogarrietatik libre dago.

Literatura egiteko era hori liburu hontako ipuietan irakurleak nabaitu ahal izango du; eta, gustatzen zaionak, asko diren bezala, dastatu.

GERO 
EVSKAL LIBURVAK
ediciones mensajero - bilbao

Ipui antzeko - Mikel Zarate


38

Mikel Zarate

IPUI ANTZEKO

GERO



13.722

e/16



Euskal Biblioteka Labayru



1012787
LITERATURA / N. 2662

Mikel Zarate

Ipui antzeko

Literatura



Azala: Tomas Hernandez Mendizabal

GERO 
EVSKAL LIBVRVAK
ediciones mensajero - bilbao

ISBN 84-271-0941-5

D. L. BI-1683-1975

© Argitaratzailea: Ediciones Mensajero - Ap. 73 - BILBAO

Gráficas Ellacuría. Avenida del Generalísimo. 19 - BILBAO-ERANDIO

*Egon gaude,
baina egonean ez.
Ez genuke egon nahi.
Egon nahi-ezez gaude egon,
egon nahi ezaren
egon beharrezko nekez.*
(B. Gandiaga)

*Zidar zuriaren
bide berriak
arrats beheraren
urre gorriak.*

*Lehenaren garrak
barnean leher:
berritu zaharrak,
berriak eder.*

*Eder, berri, zahar,
nire atsegin;
zure urre-zidar
beti nirekin.*

*Odolezko lainoz
ildako arrats
egunsentiko poz
bizi aberats.*

Lauaxeta bera izan dut berari egin diodan olerki honen bultzalari eta gidari. Baita ipui antzeko alegin mingotson bultzalari eta gidari ere.

Hain zuzen ere, olerkari punterengoa bakarrik ezezik, alegilaria ere izan genuen Lauaxeta, eta alegilari trebea. Nork ez ditu ezagutzen haren *Larrosea eta txarria, Gaztaia ta katua, Txitxreak eta mirua, Loreak eta eguzkia, Mutiltxua ta erlea...*? Nik neuk behintzat aspaldidanik ezagutzen ditut, eta alegi pitxi banaka hoiek izan ditut liburu honen sortarazle lagun.

Bat izan nuen, batez ere, nire ernarazle: *Udabarriko autorkuntza*. 1930. urtean Bilbon argitaratutako *Arrats-beran*, 65. orrialdean, irakurri nuen lehenengoz. Eta ez nekian zergaitik baina, bihotzean ikutu zidan. Eta behin eta berriz eta astiro-astiro, askotan irakurri nuen.

Udabarriko autorkuntza

*Din-dan, balendan,
elizako atetan
gizon bat dilindan.*

—Zer egin dozu pekatu,
pagoen lagun bakarra?
—Ote-lore bat triskatu
eta samindu dot larra.

—Ori eztozu pekatu.
*Mendi-usaiñez eskuak
ezin daitezuz orbandu.
Zabalik dozuz zeruak!*

*Din-dan, balendan,
elizako atetan
gizon bat dilindan.*

—Zer egin dozu pekatu,
izarren izpi zatia?
—Ao gorri bat laztandu,
axe jatan, ba, maitia.

—Ori eztozu pekatu.
*Neskuts-usaiñez ezpanak
ezin daitezuz orbandu.
Zabalik dozuz zeruak!*

*Din-dan, balendan,
elizako atetan
gizon bat dilindan.*

—Zer egin dozu pekatu,
piztien etsai ankerra?
—Ene emaztetxua urkatu,
ordia zan, ba, ta alperra.

—Ori eztozu pekatu.
Odol gorriaz eskuak

*ezin daikezuz orbandu.
Zabalik dozuz zeruak!*

*Din-dan, balendan,
elizako atetan
gizon bat dilindan.*

*Zer egin dozu pekatu,
zelai ezeko anka-arin?
—Apez-ardoa bukatu,
axe bai jatan atsegin.*

*—Ori da, ori pekatu!
Parka-eza dan obenak
gogoa dautzu orbandu.
Eroan zagiz txerrenak!*

*Din-dan, balendan,
elizako atetan
gizon bat dilindan.*

Irakurri ta irakurri, txikitan ikasiriko
ume-kanta bat etorri zitzaidan gogora.

*Din-dan...
—Nor il da?
—Peru zapataria.
—Zer egin dau pekatu?
—Auzoko txakurra urkatu...*

Gogora etorri arren, etorria joan egin zen berehalaxe ta ezin gogoratu osorik umetan ikasiriko kanta hori. "Baina ez ete dot ikusi osorik hau nonbaiten nik?", egiten nuen neurte artean, "ez ote dut irakurri Azkueren

Euskalerriaren Jakintza-n? Ala Anuario de EUSKO-FOLKLORE-n izan ote da? Baliteke". Esan eta izan, 1930. urteko Anuario de EUSKO-FOLKLORE-n aurkitu nuen, 59. orrialdean.

"Oiartzun

*Brin-bran ezkilak...
—Nor duk ila, mutilak?
—Martin zapataria.
—Zer egin du pekatu?
—Erregeren txakurra urkatu.
—Ori eztuk pekatu.*

Antzuola

*Din-don...
—Nor il don?
—Peru zapataria.
—Zer egin du pekatu?
—Aldeko txakurra urkatu.
—Ori ezton pekatu.
—Ostiralean koipatzu.
—Ori don pekatu.*

Elantxobe

*Din-dan...
—Nor il da?
—Peru zapataria.
—Zer egin dau pekatu?
—Auzoko txakurra urkatu,*

*teilla ganean sikatu.
Aren emazte koitadeak
amar maradi pagatu."*

Erri-erriko ume-kanta olerki mailan jarri du Lauaxetak ederkiro aldatu ta sendotuz, antxinatik ezpan-belarri ta libururik-liburu datorren alegi-jakitura euskaldunduz.

Jakintsua da, izan ere, Lauaxeta; asko irakurritakoa. Eta beste idazle askok egiten dugun antzera, andik eta emendik artzen ditu gaiak; beregandu egiten ditu eta, beregandu ondoren, beretu, euskaldundu. Ona emen, adibidez, Meléndez Valdés-en oda bat, 28. oda, Lauaxetak beregandu ta beretua.

Zelaiian

*Lora billa neskea
larrarantza doa.*

*Bera loretan lore,
lore gorengoa.*

*Ene maitea,
zelaiko galpidea!*

*Larratik itun dator,
itun, bai, neskea.*

*Miñez dozu barrena,
negarrez biotza.*

*Biotz barruan dozu
arantza zorrotza.*

De Dorila

*Al prado fue por
[flores*

*La muchacha Dorila,
Alegre como el Mayo,*

*Como las Gracias
[linda.*

*Tornó llorando a
[casa,*

*Turbada y pensativa,
Mal trenzado el ca-*

*[bello
Y la color perdida.*

*Ene gaxoa,
illun dozu gogoa!
Zeure matrail-lorea
zimelduaz doa.*

*Lore billa neskea
larrarantza doa.*

*Lore billa joatean
galdu dau gogoa.*

*Ene maitea,
zelaiko galpidea!
Loretan lore zanak
galdu dau berea.*

*Pregúntanla qué
[tiene,
Y ella llora afligida;
Háblanla, no res-
[ponde;
Ríñenla, no replica.*

*Pues ¿qué mal
[será el suyo?*

*Las señales indican
Que cuando fue por
[flores,
Perdió la que tenía.*

Asko irakurritakoa izan zen Lauaxeta, eta La Fontaine ere irakurriko zuen, noski. Baidu, izan ere, Frantziako alegilari ospetsu honnek, alegi irakurgarririk asko. Baina bat, *Les Animaux malades de la peste*, zoragarria. Irakurri.

*Un mal qui répand la terreur,
Inventa pour punir les crimes de la terre,
La peste (puisqu'il faut l'appeler par son nom),
Capable d'enrichir en un jour l'Achéron,*

*Faissait aux animaux la guerre.
Ils ne mouraient pas tous, mais tous étaient
[frappés.*

*On n'en voyait point d'occupés
A chercher le soutien d'une mourante vie;
Nul mets n'excitait leur envie;*

No loups ni renards n'épiaient
 La douce et l'innocente proie;
 Les tourterelles se fuyaient:
 Plus d'amour, partant plus de joie.
 Le lion tint conseil, et dit: "Mes chers amis,
 Je crois que le ciel a permis
 Pour nos péchés cette infortune.
 Que le plus coupable de nous
 Se sacrifie aux traits du céleste courroux;
 Peut-être il obtiendra la guérison commune.
 L'histoire nous apprend qu'en de tels ac-
 [cidents
 On fait de pareils dévouements.
 Ne nous flattons donc point: voyons sans
 [indulgence
 L'état de notre conscience.
 Pour moi, satisfaisant mes appétits gloutons,
 J'ai dévoré force moutons.
 Que m'avaient-ils fait? nulle offense.
 Même il m'est arrivé quelquefois de manger
 Le berger.
 Je me dévouerai donc, s'il le faut; mais je
 [pense
 Qu'il est bon que chacun s'accuse ainsi que
 [moi;
 Car on doit souhaiter, selon toute justice,
 Que le plus coupable périsse.
 —"Sire, dit le renard, vous êtes trop bon roi;
 Vous scrupules font voir trop de délicatesse.
 Eh bien! manger moutons, canaille, sottise
 [espèce,

Est-ce un péché? Non, non! Vous leur fîtes,
 [seigneur,
 En les croquant, beaucoup d'honneur;
 Et quant au berger, l'on peut dire
 Qu'il était digne de tous maux,
 Etant de ces gens-là qui, sur les animaux,
 Se font un chimérique empire."
 Ainsi dit le renard, et flatteurs a applaudir.
 On n'osa trop approfondir
 Du tigre, ni de l'ours, ni des autres puis-
 [sances,
 Les moins pardonnables offenses.
 Tous les gens querelleurs, jusqu'aux simples
 [mâtins,
 Au dire de chacun étaient de petits saints.
 L'âne vint à son tour et dit: "J'ai souvenance
 Qu'en un pré de moines passant,
 La faim, l'occasion, l'herbe tendre, et je
 [pense,
 Quelque diable aussi me poussant,
 Je tondis de ce pré la largeur de ma langue;
 Je n'en avais nul droit, puisqu'il faut par-
 [ler net."
 A ces mots, on cria haro! sur le baudet.
 Un loup, quelque peu clerc, prouve par sa
 [haranque
 Qu'il fallait devouer ce maudit animal,
 Ce pelé, ce galeux, d'où venait tout le mal.
 Sa peccadille fut jugée un cas pendable.
 Manger l'herbe d'autrui! quel crime abomi-
 [nable!

*Rien que la mort n'était capable
D'expier son forfait. On le lui fit bien voir.
Selon que vous serez puissant ou misérable,
Les jugements de cour vous rendront blanc
[ou noir.*

Udabarriko autorkuntza alegiak eta goiko horrek badute antza. Abereen autorkuntzan, lehenengo ta bat. Abere ahaltsuen (“puissances”) pekatu andiak txikitzat, ezereztzat artzen dira (“Est-ce un péché? Non, non!”); otalorea triskatu eta larra samintzea, birjintasuna ondatzea ta andra bat iltzea ere (pekatu aundien irudi) berdin, “Ori eztozu pekatu”. Behartsuaren (“misérable”) pekatu txikia, ordea, pekatu anditzat, izugarritzat artzen da; aho bete belar guri fraileei (“moines”) ohostutzea ta apaizaren ardo apurra edatea “ori da, ori pekatua!” Ironia mingotsez ernaritutako paradoja! Eta errugabea urkatu: “gizon bat dilindan” (“un cas pendable”). Lehoikume ta otsokume, asto ila jatean adiskide.

Ebanjelio kutsua ere badu, gainera, Lauaxetaren olerkiak. Talentuen parabolako “Intra in gaudium Domini!” edo azken-juizioko “venite..., possidete paratum vobis regnum...” eta “Zabalik dozuz zeruak!” berdin samarrak dira. Baita “discedite a me maledicti in ignem aeternum, qui paratus est diabolo et angelis eius” eta “Eroan zagiz txerrenak” ere.

Andik eta emendik artu ditu gaiak Lauaxetak eta alegi-olerki eder bat sortu du, orain bere-berea den olerki mamitsu bat.

Antzerki txiki bat dirudi, elkarrizketa ta koru ta guzti. Izan ere, Greziako teatroetan egoten zen koru-kanta bezala da “Din-dan, balendan...” otsitzezko lelo hori olerkiaren inguruan eta barruan.

Epai bat dela ere esan genezake. “Zer egin duzu pekatu...”, “Otelore bat triskatu...”, “Zer egin duzu pekatu...”, “Ao gorri bat laz-tandu...”, Zer egin dozu pekatu...”, “Ene emaztetxua urkatu...”. Galdera ta erantzuna, galdera ta erantzuna... epai bat epaipetu askorekin; epai bat epai-erabaki ta guzti: “Ori eztozu pekatu... Zabalik dozuz zeruak!”. “Ori da, ori pekatu! Eroan zagiz txerrenak!”.

Neurri eta ritmo aldetik ere..., baina zertarako azterketa hau? Goi mailako literaturaren sakona eta ederra ezagutzeko, nire alegiak ere nik Lauaxetarena irakurri dudan bezela irakurtzeko. Hain zuzen ere, azterketaren bidez eldu naiz ni kultura mundu sakon eta ederrera, umiltasunaren altzoan, arroak ez bai du zereginik mundu horretan.

Zerbait irakurtzeko, osorik irakurtzeko, literatura-lan baten esan-nahia norberarenganatzeko eta norberetzeko, beharrezkoa da azterketa bide hori. Azterketa asko egin ondo-

ren, igarri barik, euskera asko ikasi, kultura aundia artu eta irakurgaiak osorik ulertzen ikasten da; irakurgai atsegingarriak, atsegingarri bihurtzen dira; aspergarriak aspergarri ere bai.

Berrogei urteren bueltan (eta berrogei egunean) egin ditut ipui antzeko alegi mingots hauek; bizitzarik erdia (egia balitz!) egin ondoren, alegilari ospetsuen antzera. Berrogei urtetik gora izan zituzten, izan ere, alegilari-rik gehienek (Lauaxetak ez) beren alegiak borobildu zituztenean.

“Zer ikusi, ha ikasi”, bizitza da libururik onena ikasteko ta irakasteko, gazteek inoiz ere irakurri ezin izango duten liburu pozgarria ta negargarria, argia ta iluna, egiazkoa ta gezurrezkoa. Bizitza bera bizitzako libururik sakonena ta ikasgarriena.

Bizitzaren ondorena dira, horrexegaitik, alegiak; literatura bidez azaldutako bizitzaren ondorena; ondoren alaigarria, parregarria, ja-kingarria, mingotsa, garratsa, gazigozoa, gazi-geza...

Ez dira, ba, umeentzako eginak ango eta emengo alegiak. Umeentzako eginak direla uste izan arren, sasoikoentzako edo zaharrentzako eginak dira gehienak, eta mingots samarrak izaten dira, haugaitik, gehienak. Ni-

reak mingots samarragoak beharbada, idazgiro mingotsagoan eginak direlako.

Alegiak mozorroz jantzirik agertu dituzte, gainera, alegilari-rik gehienek. Nabarmen- go ta gailenago nabariarazten da horrela esatekoa, erakustekoa, eta iratzartu egiten da irakurleak bere gogoan erdi lotan daraman bilatze nahia, ikasgura, egia-irritsa, egiaren alderdi ezezagunak ezagutzeko gurari bizia. Bizitu ere bai egiten da irakurlearengan zuzentasunerako ardura ta ahalegina, eta literatura ederraren paradisuratu, itz neurtuzko edo itz lauzko olerki munduratu.

Bufoiak, arlekinak eta pailasoak bezala dira alegiak literaturan. Parrea eragiten digute baina, mingotsa izaten da sarri askotan beren parregarrikeria, parregarrikeriaren esan-nahi sakonagaitik.

Euskal literaturan ere egon dira alegilari batzuk. Gutxi, baina egon dira. Urriak, zoritxarrez, beste erri batzuetako literaturetan agertzen direnien parean. Eta, “dagoenean dagoentzoxa, ene enetxoa”, utsune hori pizkatxo bat bete nahirik nator. Berandu, jakina; baina atzerakeria hori gaurkotasunez eta berri- tasunez zuzendu eta aurrerabidean sartu gu- rari-rik.

Joanak joan, aurrera jo behar dugu zerbait eginez, zerbait sortuz, zerbait euskeratuz, eta dana euskaldunduz.

“Asiak egina dirudi, eginak urregorri”.

*Turroi bihurturik
arri ta galipot,
tarteko belarra
laztanki maite dot.*

*Berebil burpila
gainetik zarrastan,
bideko belarra
gutxiik dute laztan.*

Zehar eginda dago belar gaztea bide erdian. Mindurik eta aieneka. Erdi oriturik. Negar malko beltz bat du begi baten.

Berebil ori-gorri bat datorkio bere ondo-
ra. Berebil indartsu ta osasuntsu bat, gazte
eta mardo. Ahaldunen irriparre lasaia egiten
du belar gaixoarengana urbiltzean.

—Kaixo, belar!

—Agur, Auto Jauna!

—Ta...?

—Ba...!

—Zer, ba?

—Ba..., badakizu. Gose naiz. Egarrri naiz...
Eta janaririk ez. Edaririk ez. Dirurik ez...
Basamortuan bizi naiz. Bakarrik. Bakartade
izugarrian. Seniderik gabe, adiskiderik gabe,
erlerik eta pinpilinpauxarik gabe... Arriek
eta galipotak estutu egiten naute eta lehortu.
Jo abazuzak ere noizpehinka. Zuok autook ere
zapaldu egiten nauzue zuen burpilpetan...
Eta txilindroiak...? Ai, alper-arri aundi ika-
ragarria! Hura etorri dadinean...

—Bestelan ondo baina..., ez?

—Bai, Auto Jauna; bestelan oso ondo, oso
ondo...

*Bestelan oso ondo
belar erdi ila.
Badoa, badoa,
bizkor, berebila...*

*Belar ori-berde,
bideko belar on:
Bizi nahiaren
bultzakada sakon!*

*Alegi zaharren
alegi, zu, belar;
gure erri zaitut,
gure erri zahar.*

*Zuk eman didazu
indar ta adore;
zugaitik bihurtu
nire luma lore.*

*Lore nire luma,
bihotzean samin;
arrizko bidea
lorez bete ezin.*

—Eiii! Erranbidek bikiak izan ditu..., bikiak izan ditu. Gaur..., gaur. Eta siamesak, soinkideak..., siamesak, soinkideak. Eeee! Erranbideren etxean bikoitzak jaio dira..., jaio dira. Txiu, txiu, txiu! Biki siamesak euki ditu Erranbideren emazteak..., emazteak. Brrra, brrra, brrra! Purrra, purrra, purrra! Bai, bikiak, gaur goizean..., gaur goizean. Biz, biz, biz! Potx, potx, potx! Bikiak eta siamesak..., siamesak. Txitxi, txitxi, txitxi! Kutx, kutz, kutz! Gaur jai egun; ospatu dezagun..., ospatu dezagun. Eiii...!

Berri zabaltzailearen deiak eta deiadarrak, arbolarik arbola ibili ondoren, oihartzundu egin ziren trokarteko aitzetan eta deiez eta deiadarrez bete zen Ekidazu guttia. Eta izadiaren orfeoi nabarmena Erranbideren bikien jaiotza ospatzen asi zen mila abesti bateratsu kantatuz eguzkiaren zuzendaritzapean. Txori txirripitxiolarien bibolinen soinu koloretsuak zibuka zebiltzen abesti artean; igelen gitarra zahar gozakaitzak lakartu egiten zuten aizearen txistu eztsua; txirritxirrien kirkir eguzkitsu etengabeak baretu egiten zuen erreka atsozahartuen txutxutxu zurrumurrutsua...

Gertaera ospagarria izan zen, izan ere, Erranbideren biki soinkideen jaiotza.

Erranbideren etxean bertan ere bazen kantu ta algararik ugari. Telebisiokoak, irratikoak eta periodistak ere an zeuden.

—Lehenengo jaio denari Itzjario esango diogu, eta Itzeder bigarren jaio denari —esan zuen pozaren pozez Erranbidek.

—Ez. Ez horixe —erantzun zion emazteak berehalaxe.

—Zer, ba? —galdetu zion samurkiro ta laztankiro Erranbidek.

—Izen itsusiak direlako. Lehenengo jaio denari Mintz ipiniko diogu, eta Idatz bigarren jaio denari.

—Biak bat izanik, Mintzidatz deitzea ez ote litzake obe? —esan zuen orduan apalki periodista gazte batek.

—Ez. Horrela izatekotan ere, obe Idazmintz, politagoa bai da, eta gozoagoa belarri-rako. Baina ez, ez... Bat dira baina, bi ere badira, eta Mintz eta Idatz esango diegu, Mintz jaio da ta lehenengo. Edo... Idatz eta Mintz, bestelan; bata zein bestea jaio lehenengo berdin da ta. Idatz eta Mintz... Bai, politago honela. Idatz eta Mintz esango diegu. Esateko ere errezago: Idatz eta Mintz. Ez duzue uste?

—Bai —erantzun zuten Erranbidek eta telebisiokoek eta irratikoek eta periodistek.

Eta esan ta izan, horrela izan zen. Erranbideren biki siamesak Idatz eta Mintz izan ziren.

Egunak joan eta etorri, urteak joan eta etorri, andi egin ziren.

Idatz baino aundiagoa ta zabalagoa zen Mintz, eta bizkorragoa ere bai oinez ibiltzen. Zabar samarra bai baiña, oso praktikua ta konkretua zen Mintz, eta errikoia ta alaia. Idatz, ordea, neurtua ta zehatza zen, teoria zalea ta abstraktu samarra, eta Mintz baino serioagoa.

Irudimen onekoa ta ateralditsua zen Mintz, eta behingo baten ikasten zituen etxeko, auzoko, erriko, Ekidazu osoko esakerak, ipuiak, errefraua, kantu zaharrak eta abar. Erranbidek hura jaiotzean esan bezala, itz jario bat zen Mintz, bertsolari jator bat.

Adimen onekoa zen, ordea, Idatz, eta jakintsu argia ta sakona, eta Mintzen berezko jakituria batu, meaztu, zuzendu ta edertu egiten zuen, eta idatzi. Olerkaria zen Idatz.

Ezberdinak izanik, ongi konpontzen ziren biak bata besteari lagunduz. Bi izanik, bat zirudien.

Pozik zegoen Erranbide bere biki siamesen nahi ta nahi ezko alkartasuna anaitasunezko ta gogozko elkartasun bihurtu zela ikusirik. Eta maiz gogoratzen zuen haiek jaiotzean emaginak esandakoa.

—Aserre edo adiskide, soinkideok soinkide. Ez ahaztu, Erranbide, esaera zahar hau. Eta beste berri hau ere ez: Idatz eta Mintz, batean bi, luzaro ezin banan bizi. Obe izango dela askatasuna bientzako ta, soinkideok banatzea nahi izango duzue, beharbada, bihar-etzi; ahalbait arinen banatzea... Ez horrelakorik, Erranbide. Ez banatu sekula soinkideok, ez. Hain zuzen ere, bizi izango badira, elkarrekin bizi beharra izango dute, beti elkarturik, bat eginik bizi beharra. Ez banatu,

bada, inoiz ere, Idatz eta Mintz, inoiz ere ez. Entzun? Naiz ta aundiago azi Mintz, naiz ta aserretu Idatz, ez banatu. Bien ondamendia letorke bestelan; bien ondamendia eta zeuon ondamendia ere bai. Kontuz, Erranbide! Zuhur ibili, ta gogotan artu esan dizudana. Ez egin jaramonik sasi-jakitunen esanari.

Pozik zegoen Erranbide bere siamesekin. Eta egotekoa zen. Baina, hala ere, zirikatu egiten zuten bere adiskideek; zirikatu, Idatz eta Mintz banatzeko eskatuz, behin eta berriz.

—Inoiz ere ez banatzeko esan zidan emaginak —erantzuten zien Erranbidek.

—Emaginak? Zer zekian, ba, hark? Sasi-medikuen zerak; besterik ez. Begira, Erranbide: Iriburuko osagile jakintsuek esan digute. Bai, kaltegarri zaiela Idatzi ta Mintzi beti elkarrekin ibili behar hori, eta kaltegarri zaizula zeuri ere. Obeki ibiliko liratekela banan...

—Ez dut uste.

—Baietz, ba, Erranbide. Mintzen berezotasun etorritsua ito ainean darabil Idatzek. Eta oso tamalgarria da hori. Beste alde batek, Idatzen zehaztasun jakintsu ta apaina nasimasitu egiten du Mintzek.

—Hori bai baina...

—Banatu ta askatu egin behar dituzu. Eta hainbat laisterren egin ere, bakoitza bakoitzago izan dadin, bakoitzaren nortasuna sendoagotu dadin. Zer diozu?

—Ez dakit, ba...

—Ezbaian zaude?

—Bai.

—Egiak bide bat baino ez du, Erranbide. Ez ahal zara gure adiskide?

—Bai, bai. Adiskide bai baina, beldur naiz.

—Beldur? Ez zaitetz kokoloa izan. Iriburun dago etxe bat soinkideak banatzeko. Beren-beregi horretarakoxe egina. Eraman ara Idatz eta Mintz. Eraman, eta berehalaxe banatuko dizkizute anango banatzaile entzute-tsuek. Goazen, Erranbide. Ez zaitetz beldurtu. Ikusiko duzu. Goazen. Bazatoz...?

—Joan joango nintzateke baina...

—Bai ala ez?

—Ta gero...

—Ea, goazen arin.

Ekin eta ekin, ekina okerra bai da. Idatz eta Mintz Iriburuko banatzaile ospetsuengana eramane zituen Erranbidek bere adiskideen auto eder zuri baten.

Besarka ta musuka, ezezka ta aieneka joan ziren Idatz eta Mintz. Mozkorti bi legez, bi zoro bezala, gaixo biren antzera. Ez zuten banatzerik nahi; ezergaitik ere ez.

Erranbidek berak ere ez zuen nahi haiek banatzerik baina, adiskideen bultzakada ta aupada ta ekinak zorabiotu egin zuten.

Iluntzea zen Idatz eta Mintz banatzaileen-gana eldu zirenean. Kalerik-kale ta etxerik-etxe, arineketan zetorren gau beltza. Eta berehalaxe sabeleratu zuen Iriburua, bere sabel erdimintsura sartu zuen, urrengo goizeko egunsenti argitan berriz jaio zedin.

Indizio bana artu zuten lehenbizi Idatzek eta Mintzek, eta derriorezko lotara joan ziren behingo baten.

Ametseta asko egin zuen Mintzek, ametseta izugarriak: Bakarrik zegoen, Idatzik gabe, non zegoen ez zekielarik... Bakarrik? Bakarrik bai baina, banatzaile mordoa bere aurrean mozarroz jantzirik eta ikaragarritzko kutxiloekin... Nonbaitera joan nahi, andik ihes egin, alde banatzaileengandik... Baina ezin, ezin inola ere. Eta banatzaileak beragana. Eta belarriak eta sudurra moztu egin zizkioten..., bihotza eta begiak atera..., anakak txikitu..., eskuak ebaki... Zati-zati egin zuten banatzaileek azkenean. Bizirik zegoen. hala ere. Bizirik. Estu ta larri, arnasoska, az-

kenetan..., baina bizirik. Eta Idatz? Non ote zegoen? Norekin? Nola? Bizirik ala ilik...?

Goizaldea zen Idatz eta Mintz itzartu zirenean, neguko goizalde iluna, otza, euritsua. Eta banaturik zeuden. Eta oso ongi, itxuraz.

Telebisiokoak, irratikoak eta periodistak ere an zeuden, zain.

—Zorionak, Erranbide, zorionak!

—Eskerrik asko, mila esker, esker mila. Eskerrik asko, mila esker, esker mila... —erantzun zien Erranbidek banatzaileei, adiskideei, telebisiokoei, irratikoei, periodisteei..., pozaren pozez.

Eta emagina etorri zitzaion burura, emagina eta behinola emaginak esandakoa.

—Bai! Jakina. Emaginaren jakituria ta esanak eta auntzaren gauerdiko eztula, berdin samarrak. Jakina. Eta hainbeste urtetan euki ditut loturik Idatz eta Mintz... —esan zuen bere artean, irriparre gozatsuz.

Idatz eta Mintzen banatzea zela ta, pozik zeuden danak. Baina urduri samar zeuden banatzaileak. Izan ere, zurbildu egin zen Idatz. Gerizpetako lore bat zirudian, margul-margul.

—Zer? —galdetu zien Erranbidek banatzaileei.

—Ez, ez da ezer. Lasai, zaude lasai. Erranbide —erantzun zioten haiek.

Mintz ere ubeldu, berdoztu, morantzatu egin zen.

—Zer? —galdetu zien berriz ere Erranbidek banatzaileei.

—Ez, ez da ezer —erantzun zioten haiek berriz ere.

Zerbait bazen, arnasarik gabe gelditu bai zen geroxeago Idatz. Eta Mintz ere bai.

Ara ta ona, estu ta larri zebiltzen banatzaileak. Ara ta ona, eztitan zebiltzen telebisiokoak, irratikoak, periodistak.

—Ez da ezer, ez da ezer, Erranbide. Iku-siko duzu —esaten zioten Erranbideri adiskideek.

Arnasa artifizialki artzen jarri zituzten Idatz eta Mintz, eta indizioz bete, eta igortziz, eta...

—Banatu dituzuelako izango ote da? —galdetu zion dardarka Erranbidek banatzaile bati.

—Bai zera! Ez, ez, ez.

Geroago ta zurbilago egin zen Idatz, eta gogortu. Geroago ta ubelago, ostera, Mintz; ubelago ta bigunago.

Eginahalak egin zituzten banatzaileek Idatzek eta Mintzek bizirik iraun zezaten baina, alperreko ahaleginak izan ziren.

Egun joan eta egunak etorri, urteak joan eta urteak etorri, Idatz momia bihurtu zen, eta Mintz usteldu ta desegin.

Lurperatu egin zuten Mintz. Museora eramán Idatz, eta ango bitrina eder baten sartu.

Izadiaren orfeoi nabarmena isildu egin zen. Eta Erranbide mututu.

*Ementxe datza
Arrano jauna,
jaun aberatsa
ta ezaguna.*

*Jan eta edan
ta ongi bizi,
ehun urtean
dugu ikusi.*

*Ai, lehenago
il balitzaigu...,
gaizki egongo,
gaizki, bai, gaur, gu!*

Txoriak

Hura ere bazen izatekoa: elkarrekin egon behar beti, elkarrekin ibili behar beti, eta elkar ikusi ezin! Neu nagosi edo musturrak ausi, adiskidetasuna gorrotoz jantzi.

—Zorri il biztua baino piztia txarragorik ez dago. Eta horixe baino besterik ez da Eskuikale, arropuztu hori! Horixe: zorri il biztua, edo zorri il bizturen baten semea, edo loba, edo iloba; berdin da. Horrexegaitik esaten du beti horrek: gure asabak, gure ugazabak, gure abizenak, gure izkuntza zaharra, gure lehenagoko lehenagotasun zoragarri go-

goangarria, gure... Aspergarri egiten zait horren jarduna, atzelarien jarduna. Ibili ere, atzera begira ibiltzen da, eta kontuz, poliki-poliki, labankadarik egin ez dezan, jausi ez dadin... Pikutara joan dadila bere jauntxokeria, bere jakituria, bere arrokeria, bere usai gozoa! Hala ortik! Erdikale joan dadila horrekin, Erdikale urardotua, Erdikale beldurti zentzuduna, Erdikale ipurdimunlari jatorra, kaka, horixe. Hala ortik biok aizea artzera! —esaten zuen Ezkerkale ausartiak.

—Azak berea du kirtena, kaleak ez du izan behar irtena. Eta Ezkerkale irtenegia da, ausartiegia. Ez du lotsarik ezertarako, zikin ganorabako horrek! Apurtu ta apurtu, aurre-ra ta aurrera..., ta zer? Ezer ere ez; etxe zaharra desegin ta berririk egin ez, txabolarik ere ez. Ezer ere ez; inguruak nahasteborras-tetu ta baketan dagoenari baketan utzi ez. Alperkeriaren alperkeriak sortutako ezinegonaren ezinegona! Horixe baino besterik ez da hori. Nora joango zara, bada, horrelakoekin? Zoroetxeren batera edo presondegiren batera, araxe. Eta Erdikalerekin? Ezkerkale zantar horrekin ibiliko ez balitz..., tira! Baina lagun egiten dira noizpehinka ta..., ez, ez, horrekin ere ez, gixagaixo horrekin... —esaten zuen Eskuikale jakitunak.

—Adiskidea, nola zara? Zu bezala, ni ere hala. Ertzera joan nahi dute Eskuikalek eta

Ezkerkalek? Joan ditezela, bazterzaleok hala-kook! Ni ere geroago ta erdirago jarriko naiz, ta kitu! Zer uste dute, ba? Ba ahal dago erdiko bidea baino bide seguruagorik? Biderdian gelditzea ala erdibidetik eltzea, zein ote da obe? Erdibidetik eltzea, jakina. Etorriko dira, lehentxoago edo gerotxoago, niganatz. Horixe bai. Eta adiskidetu nahirik etorriko dira etorri ere. Zihur! Bestelan... —esaten zuen Erdikale apalak.

Eskuikale, Ezkerkale eta Erdikaleren elkar ikusi ezina zela ta, kantu parregarriak kantatzen zizkien iru kale hoiei Kaleiriko beste amar kaleek. Lehiorik ate ta aterik lehio.

*Iru, iru, iru
eta lau amairu.
Eskuikale,
Ezkerkale,
Erdikale,
elkarrekin bizi
eta ezin ikusi.*

*Eskuikale ahaldun,
beti bakezale
bera den arte
jauntxo eta jabe.*

*Ezkerkale behartsu,
ezinegon utsa,
buruan bihotza
eta aurrerakuntza.*

*Erdikale erdiko,
ez jan eta ez lan,
inoren menpean
bien bitartean.*

Kantu hoiek entzuten zituztenean mindu egiten ziren iru kale aserretuok. Baina, hala ere, ez ziren adiskidetzen.

Behin baten, udazkeneko jai egun eder baten, eguzkia artzen zeuden irurak elkarren ondoan.

Arlanduz, marmolez, pinoteaz eta eskudoz jantzirik zegoen Eskuikale. Adriluz, lurrez, karez eta grafitoz Ezkerkale. Zementoz, plastikoz, dendaz eta anuntzioz Erdikale.

Zahar samarra, baina aundia ta indartsua zen Eskuikale, eta jakintsua. Gazte zapazto bizkor odoitsua zer Ezkerkale, eta ameslaria. Lodikote txaparro bat Erdikale, eta praktikua.

An zeuden, geldi ta mutu, noizean behin azpitik elkarri destainaz begiratu. Halakoren baten, jakina, Ezkerkalek eten zuen isiltasuna.

—Nola, Eskuikale ospetsu hori?

—Nola..., zer? —erantzun zion Eskuikalek gogo aundirik gabe.

—Nola zure gaixoa?

—Nire gaixoa? Gaixorik ahal nago ni? Ez nekian gaixorik nengoenik...

—Bai, antza. Eta zureak laister egingo duela entzun dut.

—Entzun? Ala zeuk asmatu?

—Egia bada, berdin da.

—Asi zara, berriz ere...?

—Asi ez, bukatu baino.

—Zaude isilik.

—Neu isilik, gainera? Horixe ez. Usai gozo ta pitxi eder eta guzti ere, gaixorik zaudela esan didate, eta...

—Zeu, bai, zeu, gaixorik.

—Garbitu nazazu, zikin gogaikarria naiz ta. Sendotu nazazu, guztiahaldun horrek!

—Neu loituko nintzateke zu garbitzean...

—Hori, hori Berdintzerik ez duzu nahi zuk, bakezale horrek. Ez. Ongi bizi denaren bake santu zorionsua nahi duzu zuk, bakea erlijioz, politikaz, kulturaz, izkuntzaz... Zer zaitut zu ere, bada? Neu lakoa.

—Zu lakoa? Zertan?

—Barkatu. Gaizki esan dut. Ez naiz zu lakoa. Zure azal fina ondo jandakoaren azala

da; zure esaldiak arrian idaztekoak dira danak...

—Isildu zaitez.

—Baina komunean berdin samarrak izango garala uste dut.

—Ganorabakoekin dabilena...

—Ganorabakotu ezta? Zuk zer diozu, Erdikale?

—Nik ezer ere ez. Ekin zeuek.

Berriz ere mututu egin ziren. Baina ezin negonez zegoen Eskuikale. Ta ezin luzaro isilik egon. Ezin.

—Noren lepotik bizi zara zu, Ezkerkale? Neure lepotik. Norgaitik zaude zu bizirik, ba? Neugaitik.

—Zugaitik?

—Bai. Ez legoke Ezkerkalerik Eskuikalerik gabe. Eta Erdikalerik ere ez.

—Ederki! Egia da hori. Baina beste hau ere bai: Neugaitik, neugaitik zaude zu, Eskuikale, bizirik. Neugaitik zara zu zarana. Hain zuzen ere, ez legoke Eskuikalerik Ezkerkalerik gabe. Eta Erdikalerik ere ez.

—Eskuikaletarrok zuok baino lehenagoak gara.

—Bai? Zergaitik? Ezkerkaletarrok bai bagarela zuok baino askoz lehenagoak.

—Nondik dakizu, ba?

—Eta zeuk nondik dakizu, ba?

—Badakidalako.

—Neuk ere badakidalako.

—Ez.

—Bai.

—Baina hainbeste eztabaida alperreko zertarako? Zuok biok norgaitik zaudete bizirik, ba? Norgaitik? Esan! Neugaitik, Erdikalegaitik —esan zien orduan Erdikalek.

—Zugaitik? —galdetu zion arriturik eta urduri Eskuikalek.

—Bai. Ara: Ni gabe bat izango zinateke zuok biok. Eskuikale edo Ezkerkale izango zinateke, baina bat bakarrik.

—Ezkerkale ez —esan zuen Eskuikalek.

—Eskuikale ez —esan zuen Ezkerkalek.

—Barkatu. Berriz esango dut, ta ez aserretu. Begira: Ni gabe bat izango zinatekete zuok. Baina ni gabe ezin izan zuok zeuek. Ezin izan Eskuikale edo Ezkerkale, Kale baizik. Ikusi, bada, nola beharrezkoa nauzuen.

—Bai baina...

—Zertarako aserreturik egon? Zergaitik elkar ikusi ezinik? Adiskidetu gaitezen eta eskuiratuz, ezkereratuz, erdiratuz, edertu dezagun Kaleiri kalez, loraz eta abesti ederrez.

—Gora Erdikale! —esan zuen orduan bizturik oiuka Ezkerkalek.

—Gora! —erantzun zion Eskuikalek.

Eta txikitan ikasiriko abesti bat kantatzen asi ziren irurak berehalaxe.

*Bat eta bi ta iru,
irurok ezberdin,
lanean ari gara
pozik elkarrekin.*

Eta Eskuikale, Ezkerkale eta Erdikale adiskidetu egin ziren. Eta pozaren pozez, bi-loiztu egin ziren irurak, eta “streaking” egiten asi. Baina atxilotu, ta zoroetxe batera sartu zituzten behingoan.

Or daude orain nonbaiten, erdi zoraturik.

—Kendu zaitez nire ondotik, txikiagotu egiten nauzu ta —esan zion Menditzarrek Mendiri.

—Kendu zaitez zeu nire ondotik, aundia-gotu nadin —erantzun zion Mendik Mendit-zarreri.

Ez batak ez bestak, ez zuen zirkinik egin.

Iluntzeko argi ilunetan begi biak edo bi begiak bizturik, badoa Zaldibi edo Bizaldi (horrela ere esaten baitiote). Badoa nonbaitera arineketan, itsu-mutsuka ta zibuka. Bozina otsean, estu ta larri doa.

Goienkale, Eskuikale, Erdikale, Barrenkale, bizkor doa Zaldibi nonora, kalerik kale. Baina nora?

Osasunmendiko aizezko karatula bat darama aurpegian arnasa artzeko; aize garbizko karatula bat aize usteldu hartatik ibiltzeko.

Nahastesa, Kaskola, Urpingi, E.R.R.E.B.E. S.A., Itzontzio, abiadan doa Zaldibi, anuntziarik anuntzio. Baina nora?

Euria ta kea dantzan ari dira aize ustelduaren altzoan ilunaren mozarroz jantzirik "boite" izugarri hartan. Iriburuko argi koloretuak ere dantzan ari dira, sorginkiro.

Gozotoki, Arnotxoko, Drogakabi, Loretegi, Euskeraitzegitenda, tximista bezala doa Zaldibi, dendarik denda. Baina nora?

—Zaldibi! Zaldibi! —deitzen dio adiskide batek.

—Agur!

Ez du gelditzeko astirik, lasai egoteko gogorik, ezer gogoratzeko girorik.

Fiat, Seat, Ford, Simca, Ferrari, presaka doa Zaldibi nonbaitera berebil errekan igari. Baina nora?

Ara ta ona, edonora, edozelan, edonoiz..., joan doa Zaldibi. Joan eta joan. Baina nora?

Gelditu egin da. Gelditu? Bai. Asko da!

Mercedes jo du. Eta aserretu egin zaio, min egin bai dio. Eta burrukan asi dira Mercedes eta Zaldibi. Burdina ots ikaragarria!

Seat Txiki datorkio laguntzera Zaldibiri. Eta azpiratu egiten dute bien artean Merce-

des. Eta erdi itsuturik uzten diote hari begi bat.

Tanke erraldoi itsusia agertu da, bere lagun Kainoirekin... Jakina, astindu-astindu egiten dituzte behingo baten Zaldibi ta Seat Txiki. Irrintzi kirrinkari samingarriak egiten ditu Seat Txiki Tankeren azpian. Il egingo dute...

Irriparezka dago alboan Mercedes, izar-dia sikatzen, zikinak garbitzen, begiko zauria sendatzen. Lasai ta pozik dagoela dirudi.

Zaldibik ihesari eman dio, marmar purrustaka ta arnasoska.

Kalearterik kalearte, karatularik gabe orain, an doa Zaldibi alda-maldaka, kulunkan, zalantzan, aurrera ta aurrera. Baina nora?

Nork jakin nora doan? Berak baleki...

*Erdi minaren minez
laino beltz ernaria,
irriparrez ondoan
emagin eguzkia.
Trumoi eta aizearen
marruma urduria
negarrez ikusirik
euri jaioparria!*

*Negar otsa dardarti
aizearen altzoan,
txalapartaren otsa
euri tantak basoan.*



Errekatxo zuzenak
usategi-lepoan,
ta barruan uso bi
"Marti-dantza" gozoan.

Bizkor egin du amak
bigarren arrautzea,
kabia zaharrear
itxaropen betea.
Ez katu, ez arratoi,
osasun ta bakea,
nork lukean betiko
usoen aterpea!

Musu arin bat ematen dio usaitak usama-
ri. Eta itz gozoz edertzen du: *Kuttunto, ede-
rra zu, oso ederra zara! Muxu bat...! zure
ahottoz muxu bat emaidazu!*

Burruka ari dira senar-emazte bi etxe ba-
ten. Betiko banandu dira beste senar-emazte
bi beste etxe baten. Irugarren bi ere...

Kurrunka ari dira uso maiteminduak.
Usaitak estutu egiten du besartean usama.
Eta usamak itz gozoz edertzen du usaita: *Ede-
rra zara, kuttunto, zu bai ederra! Bikaina,
noski, zu, ene maite, txit zoragarria!*

Birao jaurtika asi dira nonbaiten senar-
emazte bi. Ondatu egin du itz gordinez gizon
batek andra bat beste nonbaiten.

Arrotu egin zaizkio usamari bere luma
zuri garbi bigunak, pozaren pozez. Eta usai-
tak lorez bete du: *Nire maite, nire atsegin
iturri! Zu bai ederra! Bai zu txairo politta!
Xarmangarriak zure itzak! Ene usoa, ene
ederra!*

Aur galdu bat lurperatu du emakume ba-
tek. Maitemindurik gizonezko bi... Gizonezko
bi? Baita andrazko bi ere; maitemindurik da-
goz andrazko bi ere. Besarkatu egin dira gi-
sonezko biak. Mosuka ari dira andrazko biak...

Balet zoragarri bat egiten dabil orain usa-
ma egoak zabalik. Usaita zoraturik dago hari
begira, eta kantari: *Ene ederño! Atoz, negua
joana bai da. Ez da gehiago euririk. Atertu
du. Landan loreak agiri dira. Olerki aroa el-
du da. Dagoeneko, gure alderdi hauetan uxa-
palaren urruma entzuten da. Pikondoren aleak
ernetzen doaz, eta mahastiek loretan usai
ederra zabaldu dute. Ene ederño! Atoz.*

Mutil bat eta neska bat daude irudi na-
barmen batzuen azpian. Sorki zahar bat be-
zala darabil mutilak neska. Sinu ganoraba-
koak egiten ari da neska gangar bat mutil
baten aurrean. Bakarrezko lizunkeriak egi-
ten ari da, haiek ikusirik, beste mutil bat.

Usaitak laztandu egiten du usama. Usa-
mak laztandu egiten du usaita. Maitaleak
maitatua maitekiro maitatuz, usoak maitemin-

duen zeruko ateetan daude. Berezko berez-
kotasun zuzenaren liluragarritasunean, zora-
bioturik: *Hain dira ezti zure itzak, hain da
politta zure muxua...! Txorabiotu egiten nau-
zu. So batez, bihotza ohostu didazu. Zure
maiteketak bai zirrarragile!*

Beren lanera doaz lau "urlia", minigona
nabarmenez jantzirik. Biloizik dauden nesken
erretatuak erakusten dizkio lagun bati amar
urteko mutiko batek, PORNO zinetokiaren
ondoan. Amabost urteko neska bat bortxatu
du ogeitamazortzi urteko mutilzahar batek.
Diruz erosi du neska gazte polit bat aberats
batek...

Usoak maiteminduen zeruan daude. *Ni
nire maitearentzat naiz eta nire maitea nire-
tzat. Eriotza bezain ahaltzua da maitasuna.*

Gizonezkoak eta andrazkoak iguinaren in-
pernuan daude.

Bela jauna, izlari ospetsua, itzaldi bat
ematen ari da telebisiotik.

—"...bai, ikusle maite-maiteok, mundu
obeago bat egin behar dugu. Eta..."

—Obeagoa oraindino...? —erantzuten dio
bildots il bat jaten dagoen Sai jaunak, ABE-
REIL enpresako buru den SAI jaunak.

Bere atzapar sendoz bildots ilari eutsi, ta
moko kakodunez haren gorpua urratu ta za-
titu, ta jan ta jan ari da Sai jauna, Bikain
jantokian.

Otso jauna datorkio ondora.

—Egunon!

—Jainkoak emon!

—On egin!

—Eskerrik asko.

—Ondo, ez?

—Bai, oso ondo, Jainkoari ezkerak.

—Baina zer...?

—Zer..., zer? —bildotsaren bihotz ustel-
dua irentsiz.

—Zuk ez daukazu lotsarik ez errespetorik.

—Zer, ba? —moko zikina garbituz.

—Ilen gorpuak jan?

—Ta zer?

—Nik neuk, beintzat, ez nuke horrelako-
rik egingo. Ezergaitik ere ez. Ez horixe, Jain-
koarren!

—Ez, zuk ez; zuk bizirik jaten dituzu ta...

Orain urte asko, batek badaki zenbat, el-
kertasunean bizi izan ziren animalia guztiak,
elkertasun pozgarri baketsu baten.

*Bat eginik guztiak
elkarren artean,
bizi ziren etsai gabe,
kontentuz, bakean.
Otsoa ta ardia
zelai zabalean
sarri ikusten ziren
biak jolasean.*

Zoragarria izan zen Abereta eta Abereta-ko bizitza aldi hartan. Eta Ekidazun, Abere-tako baztertxo baten, asto familia bat bizi izan zen: astaita, astama ta zazpi astakume, zein baino zein laisterkariago ta arrantzala-riago.

Akerrak, azeriak eta erbiak izan ziren haien auzoetako lagunak. Eta udaberriko eguzki argi, lore koloretsu, txori kantari ta belar guria agertzen zirenean, jaialdi ta jo-lasketa liluragarriak egiten zituzten elkarre-kin, astategiaren ondoko zelaian, abesti alaiak biribilketan kantatuz.

*Tan parran patan,
akerra dantzan,
astoa bibolin jotan,
azeria suari puzka,
erbia urun eralgiten.*

Behin baten, kanta-kantari eta dantza-dan-zari ziardualarik asto familiak, orrore zoli in-dartsu bat entzun zen. Nor ote zen?

Gelditu egin ziren berehalaxe astoak. Eta isil-isilik eta dardar jarri ziren.

—Nor ote da? —galdetu zuen isil-misilka astaitak.

—Piztiagakoren bat izango ote da? —gal-detu zuen beldurrik gabe astasemerik gaz-teenak.

—Zertan ote dator? —galdetu zuen asta-mak, beldurkilik astaita besarkatuz.

—Amurratu egin direla Piztiagakoak esan didate lehen Untxik, Lapinek eta Kukumixak —erantzun zion semerik zaharrenak.

—Amurratu? Bai zera!

—Amurratu...?

—Amurratu...

—Amurr...

—Goazen barrura arin. Goazen... —esan zuen astaitak.

Eta arineketan, astategira sartu ziren asto guztiak.

Beste orrore ikaragarri bat entzun zen. Orrore amurratua! Orrore izugarria! Eta zabal-du, luzatu ta ugaritu egin zen behingoan oi-hartzunean.

Isilik zeuden astoak eta zutik, belarriak ere zutik.

Eguzkia ere larritu egin zen bat-batean. Eta laino arteko bere jauregira sartu, ta tru-moia jarri zuen atezain.

Ilunak inguratu zuen astategia.

Irugarren orrore bat entzun zen. Eta lau-garrena haren ondoren. Eta seigarrena; eta

zazpigarrena, zortzigarrena..., eta trumoia ere orroeka asi zen. Orroearen orroe larria eta dana orroea!

Lehoikume ta otsokume batzuk zetozen astategirantz.

—Zer nahi ote dute? —esan zuen astasamerik arrantzarrienak.

—Ixxx...i! —esan zuen astaitak.

—Baina...

—Ixxxxxx...i!

Eupadaka ta orroeka astategiko atea apurtu, ta barrura sartu ziren lehoikume ta otsokumeak. Eta erpakada ta aginkadaz astoei agur egin ondoren, astategia berena zela esan zuten.

—Geurea da, geurea.

—Zuena? Noiztik ona? Zer dela ta? Zuen...? —erantzun zien izardi larritan astamak.

—Jakina geurea dena. Zergaitik da zuena, bada? —ihardetsi zion arropuzturik irriparre maltzurrez lehoikume bigoterre batek.

—Ba..., ba geurea delako, horrexegaitik. Ementxe bertan bizi izan gara astaldiz astaldi... —esan zion astatiak urduriturik.

—Ncizkoak zarete, ba?

—Gu ez gara inoizko.

Alperrik izan zen. Eztabaidaka eta azkeanean burruka ekitaldia eginda gero, ekidazutarrak galdu eta piztiagarrek irabazi ta nagositu.

Burrukaldia amaitu ondoren, itsu-itsuka jostatu zuten irabazleok astakumeekin.

*Astotxoa, gure astotxoa,
astotxoa, arrantzarrik ez.*

*Buruan joko zaitut,
buruan, buruan, a!!!*

*Astotxoa, gure astotxoa,
astotxoa, arrantzarrik ez.*

*Buruan eta begian joko zaitut,
buruan, begian, sudurrean,*

*ahoa, okotzean,
belcrrian, lepoan,
besoan...*

Indarkeriaren indarra, indar gabekoen negarra. Zer esan edo zer egin ez zekitelarik, astaita ta astama negarrez zeuden.

—Aurrerantzean, gure menpeko izango zarete —esan zuen lehoikume batek, olgetaldia bukatu ondoren.

—Bai —erantzun zion astasendiak.

—Ez —esan zuen bere artean astasendiak.

Joan ziren lehoikume ta otsokume amurratuok. Joan ziren urteak ere. Eta, joanak

joan, poztasun berri bat erne zen Ekidazuko astategian, inoren menpean egon beharra astuna izan arren.

Piztiagakoen baimenez, jakina, berriztatu ere egin zuten astategia gorostiz, larrosa gorriz eta lirioz.

Baina, hala ere, ezinegonezko kezka iraultzaile batek irakitzen zuen astoen bihotzetan. Eta kezka horrek eraginda, arrantzalariagotu egin ziren astakume batzuk. Eta zirriparra ta matxinadak sortu ziren Ekidazun. Eta lehoikume ta otsokumez bete zen erri osoa.

—Kontuz, astakumetxook! Kontuz! —esan zien orduan astaitak bere astakumeei.

—Betiko leloa! Betiko kontuzko kontua! —erantzun zion astakume azkar ausarti batek.

—Ta zer egin, enetxook?

—Honela bizitzekotan, obe il, eta kitu. Kitu ta kitu, asto bat il ta beste bat piztu.

—Ez, kutuntxook. Horrelakorik ez. Astakeriarik egin gabe zaindu behar dugu gure astotasuna. Gu geu gara ta geure geuretasuna geuregan zaindu behar dugu. Naiz ta aurretik erabili, bere astotasuna zaintzen duen astoa asto izango da beti.

—Eta beti astoak ardoa ekarten eta ura edaten?

—Gazte zaudete ta, bai ba, odola bizi. Baina ardi txikia beti bildots. Lehoikume ta otsokume, asto ıla jatean adiskide. Lehen hala, orain hola, gero ez jakin nola.

Astaitaren esanei ez zioten jaramon aundirik egin astasemeek. Eta halakoren baten, ostikada bat eman ta zauriturik utzi zuen astakume batek otsokume bat. Eta astakumerik gabe gelditu ziren astaita ta astama, atxilotu ta otso-kabia batera eraman bai zituzten astakumeak.

Erpatitz bat artu zuen andik laisterrera astaitak. Aberetatik zetorren. Eta betaurrekoak atera, ta astiro-astiro irakurri zuen, astama bere ondotxoan artega ta erdi negarrez zuelarik.

“ABERELKARTE

Abereta

*Aberetatik, katuilaren 24an
Astar morroiari
Ekidazuko astategira*

Astar laguna:

Jakitun egongo zarela uste dugu nola aspaldion nahasteborraste zirriparratsu batzuk sortu diren gure artean. Hau dela ta, aurreratu egin dugu aurten urteroko BATZAR NAGOSIA. Datorren astelehenean izango da,

katuil honen 28an (ez ahaztu), goizeko seiretan, betiko tokian: Basarteko Jauregian.

Etorri, bada, batzar interesgarri ta garrantzitsu hontara.

Lehoi Jaunaren aginduz:

Luki Ipurdimunek."

—Ezin zarela joan esanez ankatitz bat bialdu, ta ez zaitez joan badaezpadan batzarrrera —esan zion astamak astaitari.

—Badaezpadan joan obe. Osterantzean...

Eta esan ta egin, gogorik gabe baina, joan egin zen batzarrrera astaita.

Animalia asko bildu ziren batzarrean. Eta, beti bezala, Lehoi Jauna egon zen daren erdian, batzar-buru, eta azeriak, otsoak eta tximinoak haren ondoan, azerikeriak, otsokeriak eta tximinokeriak egiten, beti bezala.

Orroe dardartsu bat egin zuen lehenbizi Lehoi Jaunak, eta bat-batean isildu ziren abere guztiak.

Sarrerako itzaldia egiten asi zen berehalaxe azeri serbitzari bat.

—Lehoi Jauna! Gure Jaun eta Jabe zaitugun Lehoi ospetsu ta on hori! Gure agintari ta bakegile zuzena zaren Lehoi Jauna! Jaunen Jaun agurgarri hori! Agur t'erdi!

Otso, tximino, azeri lagun eta gainerako batzarkideok: Ongi etorri ta agur!

Badakizue gure Lehoi Jauna aserre dena. Arrazoiz gainera! Bai horixe! Aita on batek baino maiteago gaitu guztiok, eta gure bake ta zoriona nahi du. Berau dugu gure benetako serbitzaria, aberetarren serbitzaria, serbitzarien serbitzaria... Asko sufritu du, horrexegaitik, aspaldion. Mindurik dago beronen aurka egin diren eta beronen serbitzarien aurka egin diren astakeriekaitik. Bai; azpilana ta azpijana egiten ari dira lotsa galduko maltzur zantar batzuk, gure Lehoi beneragarria ta gu, beronen serbitzari leialok, ondatu nahirik, eta gure Lehoi bihozbeheratsuaren agintaritzta ta gure serbitzaritzta izengatu ta arbuiatu gurarik...

Baina, gure Lehoi Jauna lagun ta jarraibide dugularik, laister azpiratu ta zapalduko ditugu gure etsai gaizto banaka hoiek, eta il egin behar badira, il egingo ditugu. Bakoi-tzak berea, eta bakoitzari berea...

—Hori! Hori! Gora gure Lehoi Jauna!

—Gora!!!

Orroeka, murrusaka, irrintzika, kurrinka, urrumaka, zaunkaka, saltoka, ostikadaka, adarkadaka..., asi ziren suturik entzulerik gehienak Lehoi Jauna, azeriak, otsoak eta tximinoak goraka goratuz.

Astaitak, ordea, ez zuen arrantzarik egin. Ostikadarik bota ere ez. Geldi ta mutu egon zen, azeriak itzaldian aipaturiko *astakeriakaitik* auznartzen.

Elkarrizketa luze ta bare bat egin zuten gero batzarkide guztiek, Lehoi Jaunaren eta batabestearen birtuteak adieraziz ta etsai zitalen, arerio maltzurren jokabide okerrak gorrotatuz.

Ea aserre ote zen galdetu zion, atsedendidi baten, azeri batek astaitari; ea zergaitik ez zuen arrantzarik egin; ea konforme ez ote zegoen... Beldurrik gabe erantzuteko eskatzen zion azeriak, ez ziola ezertxo ere inori esango ta.

—Lehenengo ta behin, nire astasemeen berririk ere ez dakit eta, badakizu...

—Bai, badakit. Tamalgarria benetan! Baina, badakizu; zigortu beharrean egon diren arren, okerkeriak egiten ibili baitira, ez ditugu zigortu, ta oso ongi daude. Laister ikusiko dituzu, berriz ere, astategian.

—Bai?

—Bai, astar, zihur, gure Lehoi Jaunaren borondate onari eskerrak.

—Eskerrik asko.

—Ta zer? Nola doa batzar hau?

—Ongi. Hala ere...

—Zer?

—Zerbait esango nuke baina...

—Esan, astar. Esan beldurrik gabe. Ara: Naiz ta kontrakoak izan, mesedegarri izaten zaizkigu sarritan behekoen iritziak.

—Bai baina...

—Horrexek galtzen zaituzte: Isilik ego-teak edo zeuen artean marmar ibiltzeak.

Ekin eta ekin, ekina okerra baita, zer edo zer lortu zuen azeriak. Hain zuzen ere, Lehoi Jaunaren akats eta utsegite batzuk agertu zizkion astaitak azeriari isilpean. Azeriaren beraren falsokeria ta oker ibilte batzuk ere bai. Baita animalien arteko berezko ta legezko eskubide ta ankabide batzuk ere.

Eskerrikaskoka entzun zion azeriak astaitari.

Lehoi Jaunaren itzaldiaz bukatu zen batzarra.

—Zalapartari okerren erruz aserrea barru-barrura sartu arren, samurkiro natorkizue, aberetarrok, nire larru ta ortzetako aberetar nabarrok.

Zirriparra bihurri ta lorraren amurruagaitik berba gogorak jaurtikitzera etorri beha-

rrean, berba adikor ta irriparre samurrez natorkizue, gaurko batzar garrantzitsua auznarturik.

Artu berdinok eta berdinagook, goitarrok eta behetarrok, artu eskerrik barnekoiinak.

Aurtengo zirriparrakaitik zerbait orroetu beharrean diardut. Barkatu, ez nator arroke-riaz. Gogortasun jatorra gogortasun jatorra da. Gogorkeriak, ordea, gogorkeria dakar. Ta horregaitik, nahasteborrasteen sortzaileek arrapatu beharrean gaude.

Arrapatu, ba, doilorrok ta urrutiratu laister edo apurtu bizkor bizkar ezurrak maltzur zantarroi. Azkar, aberetarrok. Zoritxarra baztertzeke, zukur. Eta birrindu behar badira okerrok, birrindu, errukirik gabe, ta lurperatu, sartu arren errian.

Eskerrak, berriro. Datorren urtera arte. Agur.

Begi distikorrak malkoz bete zitzaizkion astaitari. Eta astamari ere bai, bere asto maitea goan zuelarik.

Gautu baino lehenago egin zuen alde astaitak batzarretik. Baina gautu ta gero ere ez zen agertu astategian.

Astama zain zegoen.

—Laister etorriko da astaita, laister —esa-

ten zion noizpehinka bere sabelean zeraman astakumeari.

Baina astaita ez zen agiri. Astategiaren kondaira kontatzen eta kantatzen asi zitzaion orduan astama astakumeari.

*Artoa denean arto.
ez denean lasto,
izan nire astakume
izan beti asto.*

Goizaldean agertu zen astaita. Bide bazterrean ilda aurkitu zutela ta, ekidazuar batzuk zekarren, ilotz.

Iturri bi bihurtu zitzaizkion bere begi ederrak astamari. Eta erdi zoraturik eta erdi-minetan, arrantzaka asi zen.

Aserre bizitan doa gabarra bat ibaian. Ikatzez beterik doa, gora ta gora. Aserre bizitan doa.

—Ez, ez, eta ez. Ez dut nahi honela bizi. Ito ta kito. Arte, gibel, eroapen, egoarri, pazientzia...! Baina noiz arte? Noraino? Ez, ez. Honela bizitzekotan..., obe il. Ai ene! Hau ezinaren ezina ta larriaren larria!

—Inka ta aieneka ari zara, lagun? Ta nik...? Zer esango dut nik? Zuk daramazun zamaldu astuna ta zeu, biok zaramaztet nik —erantzuten dio ibaiak.

—Bai baina, ni ez naiz zu.

*Jira ta bira,
bota, bai, bota,
giza-robota,
kale-ontzira
kea, porlana...,
ta bete dana.
bota, bai, bota, bota...
A, zelako, konpota!*

Otsaila. Elurrez mendiak. Otz.

Gaixorik dago otsoaita. Ai! eta ai! ari da. Erbi izoztu batzuk ekarri zituan atzo otsoamak Berexiko supermerkatutik eta, zoritxarrez, ezur bat trabatu zitzaion otsoaitari zintzurrean. Eta ez atzera ez aurrera, antxe, saman du orain ere ezurra. Eginahalak egin zituzten berak, otsoamak eta otsokumeek ezur hori kentzeko baina, alperrik. Osagile entzuetsetu baten zain dago orain, Bildots jaunaren zain. Ahoa zabalik, betagin sendo ta zorro-

tzak agirian ditu, eta aideportutu egin du haren mihina neguko eltxo epel batek.

Otsoama du bere ondoan.

Otsokumeak telebisioa ikusten daude. Hain zuzen ere, fulboleko partidu bat ematen dute: *Artzeta-Zezentza*. Koloreetan eman ere. Eta oso fulbolzaleak dira otsokumeok.

—*Zekor eta Zezenko baloiaz arineketan doazenak. Hau arineketa! Arzkumek bera bota du Zezenko... Min egin du, antza, honek. Aserretu bai egin da, behinik bein. Arzkumerenganantz doa Idiskorekin. Begira, ikusi..., jo egin du Arzkume. Arbitroak tarjeta gorria aterako du. Jakina...*

—Ba! Hainbesterainoko ez da izan —dio otsokume batek, ankapetan azka eginez.

—Bai izan da! —erantzuten dio berehalaxe bere ondoan erdi etzunik duen otsoanaiak, ortz bitartean dituen aragi zatiak iruntsiz.

—Ama! Ama! —esaten du otsoaitak estuta larri.

—Zer? Emen nago, zure ondotxoan. Min?

—Bai. Ai! ez ahal da etorri osagilea oraindino? Ai!

—Ez. Baina laister etorriko da.

—Nor joan da haren bila, ba?

—Elikoteru joan da. Zaude geldi-geldi..., ta isilik, kaltegarri bai zaizu itz egitea.

Amaitu da fulboleko partiduen lehenengo zatia.

EGABERA!

*Gora behera,
beti aurrera.*

EGABERA!

*Entzun, txoferrok,
ikusi auto ederrok.*

*Arin joan nahi duzue nonbaitera?
Erosi, bada, arin gure EGABERA.*

EGABERA!

*Hauxe kotxea,
oso merkea!*

*Hauxe aukera:
gure EGABERA!*

Eldu da Bildots jauna. Apal-apala dirudi. Estalirik ditu begiak betaurreko beltzez. Irri-parrezka artu du otso familiak. Bigun-bigun eta eskerrikaskoka agurtu du otsoaitak, eta baijaunaka ta ezjaunaka jarraitzen du.

—Gaizki daukazu ezur hori euki ere, gero!

—Bai?

—Benetan! Baina laister kenduko dizut.

- Bai, jauna.
 —Lasai artu arnasa.
 —Bai, jauna.
 —Baina ez mogitu.
 —Ez, jauna.

Serrot txikitxo bat atera du bere maletinetik Bildots jaunak. Eta kontuz-kontuz, rist-rast, rist-rast, rist-rast... ebaki egiten du erdi-erditik ezurra. Eta, halakoren baten, klask, zati bi egiten da.

—Orain ederki, ez? —galdetzen dio orduan Bildots jaunak.

—Aaaa...a! Hau atsedena! —erantzuten dio otsoaitak Jesus ta amen esan orduko ezur zati biak janez.

—Gozo...?

—Gose —arrausi luze izugarri bat eginez.

—Zenbat da? —galdetzen dio otsoamak Bildots jaunari.

—Zenbat... zer? —otsoaitak zutiturik.

—Kontua... —otsoamak.

—Kontua? Nolako kontua dakarkizu zuk orain? Zerena? Zer dela ta? Ez ahal da nai-ko ordaintzerik neuk beronen alde egin dudana egitea? —aserreturik otsoaitak.

—Zer egin didazu, ba? —arriturik eta apalkiro Bildots jaunak, serrota maletinera sartzen duen bitartean.

—Zer egin? Zaude pozik, egin dizudana kontatzeko moduan zaudelarik. “Zer egin” diozu? Zaude pozik, minik ez bai dizut egin. Gainera, il ahal izan zaitudan arren, ez zaitut il. Sari aundiagorik nola eman? Bizirik zaude nire agin zorrotz artean egon arren, bizirik. Zer nahi duzu, ba, zer? Zaude isilik aserretu ez nadin eta behar ez denen bat egin ez dezadan...

—Barkatu.

—Gabon!

—Bai, gabon, danoi.

—Ondo joan.

Maletina artu, ta isilik eta ikaraturik, ba-doa bere etxerantz Bildots jauna.

Kanpoan oso otz dago eta ilun.

Deika ari zaio telebisioa Bildots jaunari. Baina bost axola dio ta ez dio jaramonik egiten, ta aurrera doa ostopoka.

Oso ilun eta otz, ez du ezer ikusten. Baina aurrera doa, aurrera Bildots jauna, neguaren sabelean.

Telebisioa ere aurrera.

—...adarrrik adar, saltuka ta kantuka, kardantxiloak. Erle ta pinpilinpauzak basolora koloretsuen artean balet liluragarri bat dantzatzen. Untzorritz jantzitako aretxen gerizpetan otso taldeek elkarrizketan eta GARAGARDO edaten. Kardantxiloen abesti ori-gorriak GARAGARDOren bitsetan igari.

Kakalardo
beti mardo
egunero
edanez gero

GARAGARDO!

GARAGARDO! GARAGARDO! GARAGARDO! Hau egunaren argia! Hauxe udaberria! Hau eguzkiaren beroa! Hauxe zerbeza-
ren gozoa! **GARAGARDO! GARAGARDO!**
GARAGARDO!

Gaua zen.

Basamortuan zeuden robot bi. Bakartade izugarrian.

Estu ta larri zeuden, bata itsuturik, bestea ankarik gabe.

Ikusi ezinik, ibili ezinik, geldi zeuden, eta oiuka, eta aserre bizitan, eta eztabaidaka.

—Begibako! —esaten zion ankamotzak itsuari.

—Ankamotz! —esaten zion itsuak anka-
motzari.

Aizea agertu zen, halakoren baten, non-
baitetik. Eta laztandu egin zituen robot biak,
eta abesti gozo bat kantatu zien maitekiro,
aserretuok adiskidetu nahirik:

— “Egin ahalegin!
Aurrera,
au zure begiekin,
zu honen ankekin...”

Geldi zeuden, hala ere, robot biak. Geldi-
geldi. Baina aserre bizitan eta eztabaidaka...
Eta geldi egon ziren geroago ere ordu asko-
tan, egun askotan, urte askotan... Eta uge-
rrak jan zituen. Erdoitu egin ziren. Ezereztu.

Erreka egaletako altz, sarats, lizar eta sasi
kirikolaztuak zoroen sinuak egiten ari dira
aize ozkirriaren besoetan. Sinu izugarriak!

Ihauterietako mozorroz jantzi ditu ur gai-
xoak, goitikoz eta behetikoz, azkenengo euri-
tearen ondorengo goraldi bulartsuan.

Kosmetiku berri koloretsuz apaindurik
dute zuhaitzak beren berezko edertasun ede-
rra, liraintasun klorofilatsua, gaurko neska-
tila lerdin pailasotuen antzera.

Zeintasan, zertasun eta nortasunik gabe, parregarriak eta negargarriak erreka egale-tako zuhaitzok! Udaberriko jantzi dotore lo-retsuen orde, pintura ta ikatzez egindako jantziak dituzte, buztin zatarrezko jantziak. Eta edergailu asko (uraren ume galduak) be-larri, papar, eta eskuetan, sorki zaharrez, plastikozko botilaz, paperez eta gomaz egin-dako pitxi nabarmenak.

Ikusgarria benetan erreka egaletako altz, sarats, lizar eta sasien kalejira itun eta geldi hau, ur gaixoaren ondoan!

Kiratsa ta barautsa dariola dago ura. Eta txipli-txaplakadaka dabil ihes egin nahirik.

Il aurreko lozorroan egon da. Baina arrain-kari ameslari batzuk iratzartu dute. Eta jau-zika ta jausika, nonbaitera joan gura du. Mu-na gainetara igo nahi du... Baina ezin. Ezin, iltzear baitago.

Usteldurik du bere aragia. Ez du odolik bere zainetan. Ezta indarririk ere bere eskue-tan... Bihotzekoa du, garnuena du, bularre-tik dago, asmena ere... Zer ez?

Muna gainetara igoteko eginahalak egin arren, erori egiten da, behin eta berriz, mu-nak atsez eta bitsez txipristindurik utzi on-doren. Arnasoska ta zotinka ari da, atso za-har baten antzera.

Burutik egiten du baina, argialdia du orain. Eta lehena datorkio gogora, lehena, za-harrei etortzen zaien bezala.

Gaztea zen orduan, gazte urduri amesla-ria, etorkizunaren itxaropen gozoa. Eta gaz-tetasuna ta edertasuna gainezko zituelarik, kanta kantari kantore, aurrera zihoan beti bere bidean, aurrera karabilkatsu, sugelanda-re bat legez, zoro-zoro.

Behin baino sarriagotan etortzen zitzaiz-kion olerkariak bere ondora, ta maitemindu-rik, maitezoraturik, laztanka ta itz-gozoka agurtzen zuten.

*Itxaropenezko emai ibilgarriz,
errekaz erreka ta kanta kantari,
bihotza leher, taupaka, eskeintza betean...
O, ene aitzarteko iturburu apal,
mendiaren ugatz, iturriño iturri,
borborka, sorburu gardenez sortua,
egon ezinezko oinaze, minduraz...!
Ai! Nora oa hain artega ihesi?*

Bat-bateko itz jario loretsu hura entzun ondoren, berak ere olerkiz erantzuten zien. Nola ez, ba, olerkarien iturria ta etorria bai zen aldi zoriontsu hartan?

*Itsasorako bideratze behartuan,
ibai ondoko lur bazterrak ezetuz*

*eta, loreekin ederzale, berrimin,
aurrerantz noa amets auznarrean,
ilargi, laino ta goiko izarrekin,
bideetako egunkera ezberdinez,
aurrera noa, bai, bizitzarekin kutunka,
betikotasuna darion oihartzunez.*

*Aurrerantz noa, bai, geraka, berez,
dana gibel, dana goi, atzean utziz:
neure lur, neure izar eta landara,
unero neure bizitza iheskorra
ikutu arin, goraldi minkorretan
sustarrik sustar, ur tantoka barnetuz,
beti urduri, beti, bai, berrizale,
beti aurrera amets itxaropenez,
bihotzaren edergai, zatirik onenak,
bidezko lore eta zuhaitz artean
betiko erein ta betiko erantziz.*

Gaztea zen orduan, eta gazte ikusten zuen dana bere begi garbi ta argitsuz. Baina orain zikindu ta lausotu egin zaizkio begiak. Lehenagoko zidarrezko jantzi ispilutsuak ere kendu egin dizkiote ta legendar itsusiz jantzi. Sosa eta potasaz nahasi-masiturik du odola, eta kristalez, plastikoz, ojalataz eta zimaurrez ernariturik, izorraturik bere sabela. Amurraien paradisu izandako sabela, ur basati aberatsen sabela, amurraien inpernu bihurtu zaio; eta arratoi inpernu izandako sabela, arratoi-tzar zikin iguingarri ugarien paradisu.

Noizean behin apur bat berritu ta bizkortu ta adoretu arren goraldietan, bereak egin du. Baina zergaitik? Ez ote da konturatu inor bera ilez gero... Ez ahal dago osagilerik? Zuzentzailerik? Itzaile bihurtu ahal dira guztiak? Zergaitik? Zoroak halakoak! Ikusiko dute laister... Non dira nire amurraiak? Non dira nire jantzi gardenak? Non? Hau estua eta larria! Hau bakartadearen bakartadea! Ai ene! Egin on... Baina: Zer? Nor? Zergaitik...? Ai, berdintasun berdinean berdinagoaren berdinkerien menpean dagoenaren errukarria! Mama, mama gozoa...

Burutik egiten du berriz ere. Dizdizka ditu negar malkoak bere begi orietan. Negar malko kimikuak. Gazte drogatuaren begirakuna du, tristuraz gainezka. Azken arnasetan dago, antza.

Lantegietako adarrek ito egiten dituzte uraren arnasak. Eta arrainkariak altz baten adarretik eskegita utzi duten transistora kantatzen asi da, uraren ileta mingots samingarria kantatzen, penarik gabe, apaiz batzuen antzera.

Gure ibaiak

*gure errekek
ur ustelduak,
zornia daramatela
sabelean,*

gure animaren
zornia
daramatela
gibelean.

Esan dezaiegun iri ederretako
ahaldun jaunei
bakoitzak bere izakeraren
ematen duela,
bakoitzak bere izakeraren
seinalea:
sua eta kea,

sosa, potasa,
sulfatoak,
sulfitoak,
bisulfitoak,
trisulfitoak

eta

beste
zerbaiten
usai
leuna.

Joango dira
joaten dira
ur hoiek
itsasora,
eta gure lotsa
nolabait
estaltzen da
izkutuaren itzalean.
Erri eroria,

erri ezereza,
erri ahuldua,
arraza eta kuraia galdu zituen
erri trixtea:

or dituk,
or doazik
hik merezi ditukan ur ilunak,
hik sortutako
lokaztegi lirdinga hoiek...
Begira itzak,
eta egin zak kontu
hire animaren ispilu direla.

Loak artu du ura. Betiko loa ote?

Lantegiek intzentsu beltzez lurrinkatzen
dute. Organua jotzen du, bien bitartean, tru-
moiak.

Erreka egaletako altz, sarats, lizar eta sa-
sien kalejira, iletajira bihurtu da.

Aitz punta bateko gaztelu ederrean eguzkia dizdiz. Gazteluaren ate aurrean Arrano jauna, eguzkia artuz bere erreinuari begira.

Halakoren baten, Barekurkuil, bere erreinuko behealdeko serbitzari bat eltzen zaio Arrano jaunari narraz, astiro-astiro ta makur-makur, bere atzaparpetara.

—Marraskulu! —deitzen dio Arrano jaunak ezizenez.

—Ona emen zure serbitzaria, Arrano jauna, jaunen jauna!

—Baina nola eldu zara, ba, zu onaino?

—Arrastaka.

*Erdoi beltzeko burdin-arantza
larra inguruko elorri;
zeru urdinez bero orizka,
larran lur lakarra gorri.*

*Belar berdeak, belar guriak
erre egin dira, erre;
ardi otzanak Matxinen larran
aserre daude, aserre.*

*Txutxu ta mutxu, ixi ta mixi,
aserrearen beldurra;
gizen ta mizen, lasai ta masai,
aurrean duten txakurra.*

*Zuri ta gorri, gorri ta zuri,
estukuraren kolore;
beldur itoa leher indartsu,
berehalaxe adore.*

—Txakur jauna! Sumindurik eta samin-
durik gaude atsekabearen atsekabez, eta guz-
tiz nekaturik. Itota gaude esparru hontan eta
gorriak ikusten ditugu lur gorri honen agor-
tasunean. Ez ahal dago beste landarik, beste
belarlekurik, beste barrutirik lasaitasun aun-
diagoz bizi izateko? Esparru ito hontan bizi
izango ahal gara beti?

Zure eta gure ugazabarengana joatea nahi
dugu, argi ta garbi egia esatera. Gure bildo-
tsak, gure artile, gure esne, gure aragi...,
ematen diogu; gure bizia ematen diogu... Ta
zer ematen digu berak? Gure esparrutik kan-
po agiri diran larra ederrak...? Bai zera! La-
rra gorriak bakarrik.

Zutaz ere zerbait esan beharra dugu. Zuk
ez diozu ezer ematen ugazabari eta berak, os-
tera, guleriak guztiak egiten dizkizu zuri: be-
rarekin ibili, berarekin jatekorik gozoenak
jan, berarekin ongi ta lasai bizi; bizi, bizi...
Eta gu esparruan, esi barruan, esparruan go-
seak ilik, esparruan bizi ezinik, bizia emanek,
esparruan egon behar. Eta aserre gaude...

*Goiko goian, berezko lege,
behekoen onerako;*

*muna gainean dago txakurra
ardien serbitzurako.*

*Ardi larrien arrenkurak
arretaz ditu hark entzun;
beekariak zaunka isildu,
ta aita bihotzez erantzun.*

—Bai, egia da. Arrazoia duzue. Badakigu,
ongi jakin ere, nire ugazabak eta nik. Eta
ahalbait arinen atera nahi zaituztegu egoera
estu ta larri hortatik. Bai, horretan gaude as-
paldion. Baina zuok uste duzuen aina erreza
denik ez uste. Arduretan gaude eta laister
gingo dugu zerbait zuen alde. Pazientzia
apur bat bien bitartean, pazientzia apur bat...
Eta zentzunez jokatu. Galduak zarete, beste-
lan, galduak.

Etsai asko daude zuen inguruan zuek on-
datu nahirik, etsai gaizto asko. Ez ahal zare-
te konturatzen? Zenbat otso, zenbat azeri,
zenbat... arerio zuen ingurumarian! Baina
hemen gaude gu, lapurrengandik zuek zain-
tzeko, etsai guztiengandik zuek jagoteko. Zer
egin dezakezue zuek bakarrik? Zer gure la-
guntzarik gabe? Ezer ere ez, gaixook! Gu,
zuen serbitzariok, zuen ondoan egon ezik,
zuen artile, esne ta bildotsak ezezik, zeuok
ere gaizki, oso txarto ibiliko zinatekete, nora
joan ezean, zer egin ezean, zer jan ezean...

Zaudete isilik eta geldi, ba. Eta pazientzia
pizka bat. Laister etorriko da ugazaba, lais-
ter, eta...

*Gogorkeriak gogorkeria
berehalaxe dakar;
ardiak larran esi barruan
isil, geldi, larri, bakar...*

*Erdi beterik
ta erdi utsik
zatoa,
ezin ohea
ta indargea
ardoa,
bero, ausarti,
epel, beldurti,
gogoa,
Baikor ta Ezkor,
bi mozkor.*

—Ez oa i, Biskuter, arineketara ala?

—Ez. Zahar egin nauk ni horretarako.

—Arineketari asko bildu omen dituk aurtan.

—Bai, hala diote.

—Arineketa ikustera ere ez ahal oa?

—Ez, telebisatu egiten bai dute.

Arineketari asko ere asko batu dira batu ere aurtan Laisterbiden. Inoizkorik gehien, *Sariketa Nagosia* irabazteko asmoz.

Meta ondoko motor otsak eta keak ez du azkenik.

An daude, arineketa asteko prest, Ferrari, Porsche, Ford, Alfa Romeo, Fiat, Seat, Mercedes, Jaguar, Renault, Rolls Royce, Dodge, Austin, Citroen, Peugeot, Simca..., eta abar eta abar, beren laguntzaileekin.

An daude Tanke eta Traktor ere besterik ezean "accesit" bat irabazteko ustetan.

Epaimahaiko batek tiro bat bota du.

Asi da arineketa. Eta or doaz arineketari guztiak zein baino zein arinago ta zarata-tsuago.

Espikerra ere, Papagai famatua, zarataka ari da.

—Ikusi, ikusi. 1 doa lehenengo... Ez, ez; barkatu. 2 doa orain. Hau arineketa! Ikusgarria benetan! 36 eta 37 atzean gelditu dira... 11, 11 doa orain lehenengo. 12, 13 eta 14 haren ondoren. 15 urrengo. Entzun, entzun! Atera egin da bidetik 0. Atera egin da, ta iru-lau aideko buelta eman ditu... Baina, hau miragarria, aurrera doa..., sartu egin da berriz ere bidean, eta 1 eta 2ren atzetik doa orain. 120 agertu da berehalaxe. Hau arineketaren arineketa! Nork irabaziko du? Nork jakin! Onenak irabazi dezala..., AIZETArenkin. AIZETA! AIZETA! AIZETA! Hau ai-

zearen ederra Iriburuko kale artean artzeko! AIZETA! AIZETA! AIZETA! Salgai edozein dendatan... Eman dute buelta bat arineketa-lariok. Bigarrena ere laister emango dute...

Kainoi joan da epaimaikoen ondora, eta elkarrizketan ari da haiekin. Zer nahi ote du?

Tankeri ta Traktorri buelta baino gehiago kendu dizkiete arineketari batzuk. Iru ere bai laister.

Galderaren bat egin die, antza, Kainok epaimahaikoei, baiezka ta ezezka ari zaizkio hauek eta. Baiezka ta ezezka, baina azkenean danak baiezka.

Amar buelta asko dira baina, bizkor ibiliez gero behingoan egiten dira.

—Or datoz berriz ere arineketalariok... Azkenengo buelta da oraingoa lehenengo doazenentzat. Azkenengo buelta... —dio orroeka espikerrak.

—Nor dator lehenengo? —galdetzen du batek.

—Ferrari dela uste dut —ferrarizale amurratu batek.

—Badatoz, badatoz metarantz... 1, 2, 3, 4, 1, 2, 3, 4; 5, 6, 7, 5, 6, 7..., zeinek, zeinek irabazi...? —dio espikerrak.

Tanke eta Traktor datoz metarantz (iru buelta gutxiago eginik, jakina), eta txaloka artzen dituzte ikusleek. 1, 2 ta 3 datoz haien atzetik. Igaro dute meta Tankek eta Trak-torrek. Sartu dira metara 1, 2 eta 3. Bozina ots ikaragarria entzuten da.

Kainoi eta epaimahaikoak elkarrizketan daude. 4, 5, 6, 7 eta 8 ere sartu dira metara. Baita 9, 10 eta 11 ere.

Halakoren baten, mikrofonoa artzen du epaimahaikoen buru denak. Eta dei egiten du *Sariketa Nagosia* nork irabazi duen esateko.

—Isilik, mesedez! Entzun! Lehenengo saria: Tankeri. Eta “accesit”-a: Trak-torri. Zorionak!!!

Katarrek urtero iltzen zuen arratoi bat. Amaika arratoiboda pozgarri egina da bere etxekoarteko ta adiskideekin!

Ongi gizenduriko arratoi bat il du aurten ere. Eta pernil ederrak atera dizkio. Inoizko-rik ederrenak.

Pipergorritu ondoren, eskatzean euki ditu eskegita. Baina, hau zoritxarraren zoritxarra, ohostu egin dizkiote lehengo astean; bere adiskideek ohostu ere.

Gogailduta, bihotza erorita dago Katar.

—Nor izan ote da lapur gaizto hori? —dio bere kautan.

Erpatitz bat ekarri dio oraintxe bertan Katamixerrek, eta irakurtzen ari da. Bere adiskideek bialdu diote. Arratoipernil-jan bat egitera joateko konbite da.

A, 2: Konforme! Bat nator ni ere.

F, 3: Faborez...

D, 145: Bai?

D, 146: Bai.

E, 4: Baina...

E, 56: Ez.

A, 1: Mozorroa jarri, ta aurpegia kendu.

B, 33756886974:

*Binbili-bonbolo, jan tan lo...
Errege Prantzian balego!
Akerrak kanta,
Idiak dantza,
Astoak danbolina jo.*

C, 1: Parará, papá, parará?

C, 2: Parará, Pachín, parará.

B, 4869: *Angulo* zara zu? Ba, *Angulo* euskal abizena da: *an gu lo*.

Z, 333333: Nor nor den eta non dagoen eta zer zer den ulertzen ez den edo ulertzen denean gaizki ulertzen eta den-dena oso-osorik artzen duen magnetofoi aundi baten artu den Ihauterietako mozorrodun izketa zirriparratsu oihartzuntsu nahasteborrastetsuaren ots nekagarritsua!

H, 0: Erriaren itzak...

H, 1: Herriaren hitzak...

J, 36: Jan jan, jan barik joan barik.

Q, 99: ...no tiene enmienda, no. Mundo mundorum, peronia secula.

K, 100: Kaka!

W, 100: Mierda!

L, 4: Auto ederra benetan!

A, 1: A...!

E, 1: E...?

I, 1: I...!

O, 1: O...!

U, 1: U...!

Z, 5: A, e, i, o, u. Ama, merienda behar dugu: bost arrautza ta koipetsu...

B, 33: Arabako abadearen kapelapean baba garau bi, Arabako abadaren kapelapean baba garau bi, Arabako abadearen...

W, 2345: Yes.

CH, 1: Con la cara tapada decimos y nos dicen verdades tan amargas que ni los más hábiles se atreverían a formularlas con la cara descubierta. Con la careta se dice lo que se siente, sin ella no se siente lo que se dice...

M, 978: Mama darama nire amak.

N, 52: Ekonomikoki ala sistimatikoki?

Z, 98765432123456789:

*Aurtengo ihauteri
denbora de tirreteri.
Bazterretan anitz eri...*

P, 2: Edukazio aldetik i ere... Bokadilurik txikiena ez duk artu badaezpadan.

B, 33: Akerrak adarrak okerrak ditu, akerrak adarrak okerrak ditu, akerrak adarrak okerrak ditu, akerrak...

P, 3: Txikiena artuko uen i izan bahintz ala? Ba, or daukak txikien hori! Hainbeste kopla...!

B, 33: Ur drogatuaren prosopopeia? Ura-
ren prosopopeia drogatua? Prosopopeia dro-
gatuaren ura? Ur proposopopeiatuaren droga?
Droga urtuaren...

G, 45: Mozorroturik gezur itxuratan ga-
biltzanean..., orduantxe ageri gara zinez
egiazkoenik.

S, 48: Nun dagode, bakaldun, txadoneko
txindiak?

W, 20: Verkleidung. Maske...

Q, 444: Ezo etá mu floo.

R, 5: R12, 1500, 850, 4-4, 1430, R10 600...

H, 2: Publikoki ala marjinateuen marje-
nean sekretoki?

T, 22: Ogeitamaika eskutik eukiez gero,
jakina.

B, 3: Iputz apezak napar istupez ato-
rra, napar apezak iputz istupez atorra...

X, 36: Xabierren xemea.

M, 890: Zu?

CH, 88: Sí.

A, 333: Ez.

N, 2: Buda bat bezala dago Madmonen
eliza hura iriburuaeren erdian, eta iriburuko
etxeek gurtu egiten dute hura, haren ingu-
ruan belaunikaturik. Baserririk ez da ageri...

V, 1: Komuniatu egiten dira denak ko-
mun komunean. Komunzki komuniatzen ez
direnak ere komuniatu.

L, 3456: Ihauteritu egin dute iriburu
osoa.

A, 111111: Uda eta udako ikastaroa eta
udako ikastaroko gazteak eta udako ikasta-
roko gazteen gogoak eta udako ikastaroko
gazteen gogoko deklinabidea eta udako ikas-
taroko gazteen gogoko deklinabidearen deklin-
abidekerak eta udako ikastaroko gazteen
gogoko deklinabidearen deklinabidekera mu-
gatua ta mugagabea edo zehaztua ta zehaztu-
gabea edo ezaguna ta ezezaguna edo...

Alegi-liburu batzuk ekarri zizkion, lehen-
go egun baten, Zaldi bere adiskideak: *Esopo*,
Fedro, *La Fontaine*, *Iriarte*, *Samaniego*...

B, 33: Puntan punta bi, atzean zulo bi.

C, 99: El Carnaval dura trescientos se-
senta y cinco...

A, 2233445566778899:

*Zalapart hartan zenbat naspil!
Zenbat karraxi, zer iskanbil!*

*Itsumuka,
trunbuluka,
jende dena dabil.*

B, 33: Kanbon palangak pagoz, Kanbon palangak pagoz, Kanbon palangak pagoz...

Ll, 1: Bai ta ez.

Y, 1: Baita ta ez.

S, 465: Itsasoaren orroe larriak, transistoren zaratak, aurren karraxiak, atsoen marmarrak, transistoren zaratak, itsasoaren orroe larriak, transistoren zaratak, aurren karraxiak, transistoren zaratak, atsoen marmarrak, transistoren zaratak, transistoren zaratak, transistoren zaratak...

B, 256: ABEDE! ABEDE! ABEDE! Ede-rra, alafede!

X, 123456789...: A. Z. K. E. N. A., 47586k3frh, Dyhu876GnUjh36, A. S. I. E. R. A., b2, B4, N78, 2345, A. U. R. R. E. R. A....

*Ez dut nahi, ez,
ilterik;
iraun nahi dut
bizirik;
baina bildots, neu,
izanik,
naiz eta bizi
mindurik.*

*Ez dut nahi izan
aitzore,
aitzorearen
gaizkide;
ez dut nahi izan
iltzaile...,
iltea bai da,
bai, obe.*

Asto asko daude Ekidazun (non ez?). Bat, oster, Tutulu, danetarik astoena.

Egia esan, berari Tutulu esaten diote baina, berari buruz *Kirten*, *Kaiku*, *Tenteltzar* eta holakoak. Hain zuzen ere, eskolara urte askotan ibilia izan arren, kirten kaiku tenteltzar bat da, eta kirtendu, kaikutu ta tenteldu egiten da edozer gauzaitik. Eztabaidaren bat sortzen denean batez ere.

—Bai.

—Ez.

—Baietz, ba, Tutulu!

—Ezetz, ba!

—Neu egon naiz antxe bertan bajna!

—Berdin da.

—Egia dela, ba, Tutulu! Horrelaxe da.

—Ez da.

—Zergaitik ez da, ba?

—Zeragaitik: horrexegaitik.

—Arrazoi galanta! Jakina: ibili ere astakirtenekin nabil ni eztabaidaka ta...

—Zu, kontuz, gero! Kontuz zer esaten duzun.

—Astakirtenekin nabilela.

—Astakirtenekin zeu ibiliko zara, zeu. Entzun duzu?

Naiz eta irakurtzen duenetik erdirik uler-tu ez, badaki irakurtzen Tutuluk. Eta irakurtzen jakin bakarrik ezeze, jakintuntzat du bere burua. Jakina.

Besteari *astakirten* esan nahiaren esan nahiaz, bere buruari esan. Orra or, Tutuluren zuhurtasuna.

Betaurreko berriak erosi, ta behingo baten irakurri omen ditu alegi-liburuok. Eta irakur-

tzen irakurtzen zebilelarik, hauxe esan omen zuen arrantzaka: “Ba! Pitxikeriak, umeke-riak...”. Gero, kilikolo zegoen mahai baten anka bat berdindu zuen liburu bat eta erdiaz, ta gainerakoak esarlekutzat erabiltzen ditu.

Aurkibidea

Itzaurrea	7
Bestelan ondo baina..., ez?	21
Idatz eta mintz	25
Arranoren ilobia	35
Eskuikale, ezkerkale ta erdikale	37
Menditzar eta Mendi	45
Nora...?	47
Berezkotasuna	51
Sai ta Otso	55
Ekidazuko astasendia	57
Ni ez naiz zu	71
Konpota	73
On eginaren pagua... ..	75
Basamortuko robotak	81
Ileta	83
Arrastaka	91
Serbitzarien serbitzari	93
Baikor ta Ezkor	97
Sariketa Nagosia	99
Arratoiboda	103
Ihauteri	105
Bildots ala aitzore?	111
Tululu	113

Esku-liburuak GERO - Bilbao - Ap. 73

1. Orixe. *Jainkoaren billa*
2. Gotzon M. Garate. *Marxen Marxismoa* (agortua)
3. Patxi Altuna. *Euskal Aditza. Batua?... Baturakoa*
4. Xabier Azurmendi. *Izatearen Malura*
5. Federiko Zabala. *Euskal Herriaren Historia*
(1. *Lur Ekonomia*)
6. Gurutz Ansola. *Euskal Herriko Ekonomiaz*
(1955-1967)
7. Anjel Lertxundi. *Ajea du Urturik*
8. *Isolottoko Katekima*
9. Mikel Ugalde. *Langileria historian zehar*
(1. *Bigarren Internazionala arte*)
10. Benantzio Otaegi. *Lehen Gizarteak*
11. Gotzon Garate. *Marx eta Nazioa*
12. Larresoro. *Hizkuntza eta Pentsakera*
13. Xabier Mendiguren. *Europako ezker berria*
14. *Mitxelenaeren Idazlan Hautatuak*

15. Gorka Trintxerpe. *Zorion Baten Zainak*
16. Mikel Lasa. *Nobela Berria Hego-Amerikan*
17. Siadeco. *Industria herri baten azterketa*
18. Kaxildo Alkorta. *Giza Zirriborrea*
19. Mitxelena. *Zenbait Hitzaldi*
20. Elkar lanean. *Pio Baroja*
21. Gurutz Ansola. *USAren agintaritzza eta dolarraren ahulezia*
22. Martin Ugalde. *Itsasoa ur-bazter luzea da*
23. Juan Mari Lekuona. *Muga beroak*
24. Txomin Peillen. *Gatu beltza*
- 25-26. Roman Garate. *Lanaren antropologia*
27. Sabin Irizar. *Txingo. Gertaldi eta ibilkeriak*
28. Anjel Lertxundi. *Goiko Kale*
29. Joshe Erzibengoa. *Pedagogia gaur*
30. Mikel Ugalde. *Langileria historian zehar (II)*
31. Bitoriano Gandiaga. *Hiru gizon bakarka*
32. Orixe. *Santa Kruz apaiza*
33. Gotzon Garate. *Marzismoaren errebisionismoa*
34. Edorta Kortadi. *Artegintza, artista, gizartea*
- 35-36. Xabier Lete. *Bigarren poema liburua*
37. Luis M.^a Muxika. *Aintzinako sozio-ekonomia (I)*
38. Mikel Zarate. *Ipui antzeko*
- 39-40. Siadeco. *Industriagintza bidean.*

Argitaratzekoak:

- Luis M.^a Muxika. *Gizartea eta parasozialismoa* (inpr.)
- Joxe Azurmendi. *Irautza sobietarra eta literatura* (inpr.)
- Federiko Zabala. *Euskal Herriaren Historia (II)* (inpr.)
- Juan Mari Irigoien. *Nobela bat*
- Yon Mirande. *Lan hautatuak*
- Jesus Altuna-P. Areso. *Biologiaren gaurko problematika*
- Piarres Lafitte. *Euskaldunen herri Literatura*
- Mitxelena. *Linguistika*
- Eugene Goihenetche. *Ipar Euskal Herriaren Historia*

KIMU saila

1. Joshe Erzibengoa-Patxi Ezkiaga. *Euskal Literatura I (XVI-XVII)*
2. Lurdes Iriondo. *Martin Arotza eta Jaun Deabrua. Sendagile maltzurra* (antzerkiak).
3. Zarauzko Ikastolako Haurrak. *Haurra ipuin de-nean*
4. Lurdes Iriondo. *Hego-haizearen ipuinak*
5. Joshe Erzibengoa-Patxi Ezkiaga. *Euskal Literatura II (XVIII)*
6. Jesus M.^a Arrieta. *Antso Gartzreiz*
7. Joshe Erzibengoa-Patxi Ezkiaga. *Euskal Literatura III ** (XIX)
8. Iñaki Azkune-Jesus M.^a Arrieta. *Amaia*
9. Joshe Erzibengoa-Patxi Ezkiaga. *Euskal Literatura III *** (XIX)
10. Elgoibar-ko Ikastolako Haurrak. *Izarren begietan*

Argitaratzekoak:

- Iñaki Azkune. *Eneko Haritza* (inpr.)
- Lurdes Iriondo. *Buruntza azpian* (inpr.)
- Iñaki Azkune. *Kattalin Erauso*
- Antton Narbaiza. *Euskaldunak Everest bidean*
- Jaxinto Fdez. Setien. *Guillermo Tell*
- Txomin Peillen. *Ipuinak*
- Elkar Lanean. *Ibilaldiak*
- Gorka Knörr. *Zenbait inbento*
- Julio Verne. *Munduari ingurua 80 egunetan*
- Kaxildo Alkorta. *Munduan zehar*
- Xabier Lete. *Euskal kanta berriaren ikustapena*

Esku-liburuetatik kanpora:

- Sergio Bigatello. *Seksu-Ezibidea*
- Iñaki Arrarte. *Adiztegia*
- Jesus Altuna. *Lehen Euskal Herria*

Tintin-en gertaera arrigarriak:

- Tintin Ameriketara* (agortua)
- Ottokar-en errege-makilla* (agortua)
- Tornasol arazoa* (agortua)